


Unai Razkin Zufiaur

A maila • 1 saria

2002an jaio nintzenetik lurak eguzkiaren inguruan 17 bira eta erdi eman ditu. Bira guzti horietan zehar izugarritzko zortea izan dut, lagun paregabeak, irakasle ezin hobek eta familia aparta izan baititut. Denek, irakurzaletasuna bultzatu didate, beharbada emaitza handirik gabe, baina beti diot nire apalean lagun, irakasle eta gurasoen liburuak gainezka egiten dutela, hortaz, hein handi batean sari hau haiei zor diet.

Zaletasunei dagokionean, zera esan dezaket: Txiki-txikitatik nire familiak zientziaz hitz egin dit eta nik haren edertasuna ulertzeko eta miresteke zortea izan dut, atomoetatik hasi eta izarretaraino! Hala, batxilergoa bukatu eta unibertsitatari begira, argi daukat Fisikako Graduan sartuko naizela.



EUSTERIK BANU

Itsas bazterretan
gogoratzen dut
harea eskuetatik
irristaka joaten
zitzaidala

Oroitzapena dut,
gogor heltzen banion ere,
hura bazihoala,
eta zorigaiztokoa nintzela
hari heltzerik ez niolako.

Hainbeste egonda ere,
paregabeak ziren
hondar-aleak.
Betirako gorde nahi nuen.

Inoiz ez nuen etsiko,
gogor eusten nion,
hainbeste irrikatzen nuen
bizitasun hura

solte uztean soilik
agertzen zela
ohartu gabe

Ez nuen ulertzen
noizbait besteren batek
harea
nik baino hobe
ederretsiko zuenik.

Eta aldiz,
ihesa miretsi ordez,
preso atxikitzea nuen helburu.
Azken hondar-alea
eskuetan nuela
erabat etsita
indarra galdu nuen

Erortzen zihoan bitartean
ohartu nintzen
harea hura
ez zela
eskuartean izatekoa,
ingurukoekin banatu eta
joaten uztekoa baizik.

Askatasuna zen
nik zor
eta eman ez niona.

Joan zitzaidan azkenean
hainbeste maite izan nuen
eskukada hondarra